Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

574

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 28koa, Energia eta Meategien zuzendariarena, zeinaren bitartez ondoko burutzapen-proiektua onartu, herri-onurako deklaratu eta instalatzeko baimena ematen baita: Berantevilla (Araba) udalerrian, Anduva-Treviño linea Olarizu-Berganza TAE linearekin lotzeko 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoa, Mijancas eta Santurde herrien artean dagoena.

Erref.: 17407-PRD-mmb.

Esp: 01-AT-H-2007-00043.

AURREKARIAK

Bat.– 2007ko uztailaren 23an, Iberdrola Distribución Eléctrica SAk (Burgosko Alcalde F. Dancausa kalea, Gamonal-Villimar industrialdea, z.g) ondoko linea elektrikoari doakionez exekuzio-proiektua onartzea, herri-onurako deklaratzea eta administrazio-baimena eskatu zituen: Berantevilla (Araba) udalerrian, Anduva-Treviño linea Olarizu-Berganza TAE linearekin lotzeko 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoa, Mijancas eta Santurde herrien artean dagoena. Hartarako, eskabidearekin batera honakoa proiektua aurkeztu zuen: José Ignacio Núñez Morante ingeniari industrialak izenpetu (2389 zenbakia duen kolegiatua) eta Valladolideko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak bisatu du 04220/07 zenbakiarekin, 2007-07-12an.

Bi.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko (2002ko urriaren 23ko EHAA) 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko (2000-12-27ko BOE) 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aipatu eskabidea jendaurrean jartzen duen iragarkia 2007ko abenduaren 21eko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian, 2008ko martxoaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 2007ko abenduaren 13ko El Correo egunkarian argitaratu zen.

Iragarki hori Berantevillako Udaletxeko ediktu-tauletan jarri zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Espediente hau ebaztea Energia eta Meategien Zuzendaritzari dagokio, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriaz.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

574

RESOLUCIÓN de 28 de noviembre de 2008, del Director de Energía y Minas, por la que se autoriza la instalación y se aprueba el proyecto de ejecución de la línea eléctrica aérea a 13,2 kV de enlace de la línea Anduva-Treviño con la línea STR Olárizu-Berganzo, entre las localidades de Mijancas y Santurde, término municipal de Berantevilla (Álava) y se declara su utilidad pública.

REF.: 17407-PRD-mmb.

EXP: 01-AT-H-2007-00043.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 23 de julio de 2007, Ibedrola Distribucion Electrica, S.A. (Burgos) con domicilio en Burgos, c/ Alcalde F. Dancausa (Polígono Industrial Gamonal-Villimar, s/n), solicita autorización administrativa, declaración en concreto de la utilidad pública y aprobación del proyecto de ejecución de la eléctrica línea eléctrica aérea a 13,2 kV de enlace de la línea Anduva-Treviño con la línea STR Olárizu-Berganzo, entre las localidades de Mijancas y Santurde, término municipal de Berantevilla (Álava) aportando instancia al respecto, acompañada del proyecto correspondiente, firmado el Ingeniero Técnico Industrial D. José Ignacio Nuñez Morante, colegiado n.º 2389, y visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Tecnicos Industriales de Valladolid, el 12 de julio de 2007 con el n.º 04220/07.

Dos.– A los efectos previsto en el artículo 10 del Decreto 282/2002, de 3 de diciembre, (BOPV 23-10-2002) y artículo 144 del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre (BOE 27-12-2000), fue publicado el anuncio por el que se somete a información pública la citada solicitud en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, de fecha 21 de diciembre de 2007, en el boletín Oficial del País Vasco de fecha 5 de marzo de 2008, y en el diario El Correo, de fecha 13 de diciembre de 2007.

Asimismo, el citado anuncio fue expuesto en los Tablones de Edictos del Ayuntamiento de Berantevilla.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Energía y Minas es el órgano competente para la resolución de este expediente, de conformidad con lo establecido en el Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Bi.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 40. artikuluan ezartzen da ezen, energia elektrikoa ekoizteko instalazioak eraiki, ustiatu, nabarmen aldatu, eskualdatu eta ixteko beharrezkoa izango dela aldez aurretik administrazioaren baimena izatea.

Hiru.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren bidez honako instalazio hauek eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio baimenerako prozedurak arautu ziren: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak EAEn konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere.

Lau.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 52. artikuluan ezartzen da herri-onurakoak direla energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko diren instalazio elektrikoak, ezartzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetze aldera eta igarobide zorra jartze eta erabiltze aldera. Lege horretako 54. artikuluan ezartzen denez, halaber, herri-onurako deklaratze horrek ondasunak okupatu beharra, eragindako eskubideak erosi beharra eta, Nahitaezko Desjabetze Legeko 52. artikuluaren ondorioetarako, urgentziaz okupatu beharra dakar.

Bost.– Administrazio prozedurako arau erregulatzaileetan eta aipatu legeetan aurreikusitako prozedura izapide eta baldintzak hartu dira kontuan eta bete ere egin dira espedienteari izapideak egiterakoan.

Aipatutako lege-manuak, eta oro har aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honakoa

EBATZI DU:

Iberdrola Distribución Eléctrica SAri (Burgos) baimena ematea honakoa ezartzeko: Berantevilla (Araba) udalerrian, Anduva-Treviño linea Olarizu-Berganza TAE linearekin lotzeko 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoa, Mijancas eta Santurde herrien artean dagoena. Eta honako exekuzio-proiektu hau onartzea: José Ignacio Núñez Morante ingeniari industrialak izenpetu (2389 zenbakia duen kolegiatua) eta Valladolideko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak bisatua 04220/07 zenbakiarekin, 2007-07-12an; eta honako ezaugarriak dituena:

1. tartea: Badagoen 369 zenbakiko euskarria – Mijancas TZrako egungo desbideraketa-lineako 373 zenbakiko euskarria.

– Zerbitzu-tentsioa: 13,2 kV.

_ Zirkuitu kopurua: 1.

– Eroaleak: 3.

Dos.– La Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico, determina, en su artículo 40, que la construcción, explotación, modificación sustancial, transmisión y el cierre de las instalaciones de distribución de energía eléctrica estarán sometidas al régimen de autorización administrativa.

Tres.– El Decreto 282/2002, de 3 de diciembre, regula el procedimiento de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cuatro.– El artículo 52 de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del Sector Eléctrico declara de utilidad pública las instalaciones eléctricas de generación, transporte y distribución de energía eléctrica, a los efectos de expropiación forzosa de los bienes y derechos necesarios para su establecimiento y de la imposición y ejercicio de la servidumbre de paso y el artículo 54 del mismo texto legal establece a continuación, que la declaración de utilidad pública llevará implícita en todo caso la necesidad de ocupación de los bienes o de adquisición de los derechos afectados e implicará la urgente ocupación a los efectos del artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Cinco.– En la tramitación del expediente se han tenido en cuenta y cumplido los requisitos y trámites de procedimiento previstos tanto en las normas generales reguladores del procedimiento administrativo, como en la legislación antes citada.

Visto los preceptores legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVE:

Autorizar a Iberdrola Distribucion Electrica, S.A. (Burgos), la instalación de la línea eléctrica aérea a 13,2 kV de enlace de la línea Anduva-Treviño con la línea STR Olárizu-Berganzo, entre las localidades de Mijancas y Santurde en el Término Municipal de Berantevilla (Álava), y aprobar el proyecto de ejecución firmado por el Ingeniero Técnico Industrial D. José Ignacio Nuñez Morante, colegiado n.º 2389, y visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Tecnicos Industriales de Valladolid, el 12 de julio de 2007 con el n.º 04220/07, cuyas principales características son las siguientes:

Tramo n.º 1: apoyo existente n.º 369. Apoyo existente 373 de la actual línea de derivación al C.T. Mijancas.

– Tensión de servicio: 13,2 kV.

– N.º de circuitos: 1.

– Conductores: 3.

– Eroale-motak: (LA-56) 54,6 mm²-ko altzairu eta aluminiozkoa.

– Euskarriak: metalikoak eta hormigoi armatukoak.

– Luzera: 522 m.

– Hasiera: Mijancas TZrako desbideraketa-lineako 369 zenbakiko euskarria (badagoena).

– Amaiera: Mijancasen inguruetan, linea bereko 373 zenbakiko euskarria (badagoena).

2. tartea: 175. zenbakiko badagoen euskarria - Olarizu-Berganzo TAE egungo lineako 177 zenbakiko badagoen euskarria.

– Zerbitzu-tentsioa: 13,2 kV.

– Zirkuitu kopurua: 1.

– Eroaleak: 3.

– Eroale-motak: (LA-78) 78 mm²-ko altzairu eta aluminiozkoa.

– Euskarriak: metalikoak eta hormigoi armatukoak.

– Luzera: 351 m.

– Hasiera: Olarizu-Berganzo TAE lineako 175 zenbakiko badagoen euskarria.

– Amaiera: Santurderen inguruetan, linea bereko 177 zenbakiko euskarria (badagoena).

3 tartea: Olarizu-Berganzo TAE eta Anduva-Treviño lotzeko linea.

– Zerbitzu-tentsioa: 13,2 kV.

_ Zirkuitu kopurua: 1.

– Eroaleak: 3.

– Eroale-motak: (100 A1/51 A) 116 mm²-ko altzairuzkoa.

– Euskarriak: metalikoak eta hormigoi armatukoak.

– Luzera: 2.459 m.

– Hasiera: Mijancasen inguruetan, proiektatutako lineako 19882 zenbakiko euskarria.

– Amaiera: Santurderen inguruetan, proiektatutako lineako 19899 zenbakiko euskarria.

Baimentzen den instalazioa herriarentzat onuragarria dela deklaratzea; eta azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluarekin bat etorriaz, deklarazio horrek honako hauek dakartza: eraginpeko eskubideak eskuratu edo ondasunak okupatu beharra, aipatutakook presaz okupatu beharra, eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legeko 52. artikuluak, presaz okupatu beharreko deklaratzeari doakionez, xedatzen dituen ondorioak zehaztea, betiere arau horretako 53. artikuluko erregistro-ondorioekin.

Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriaz eta ondoko baldintza orokorrekin ematen da ebazpen hau:

– Tipo de conductores: aluminio acero de 54,6 mm² (LA-56).

– Apoyos: hormigón armado y metálicos.

– Longitud: 522 m.

– Origen: apoyo n.º 369 (existente) de la línea de derivación al C.T. Mijancas.

– Final: apoyo 373 (existente) de la misma línea en las inmediaciones de Mijancas.

Tramo n.º 2: apoyo existente n.º 175. Apoyo existente n.º 177 de la actual línea STR Olarizu-Berganzo.

– Tensión de servicio: 13,2 kV.

– N.º de circuitos: 1.

– Conductores: 3.

– Tipo de conductores: aluminio acero de 78 mm² (LA-78).

– Apoyos: hormigón armado y metálicos.

– Longitud: 351 m.

– Origen: apoyo n.º 175 (existente) de la línea STR Olarizu-Berganzo.

– Final: apoyo n.º 177 (existente) de la misma línea, en las inmediaciones de Santurde.

Tramo 3: línea de enlace Anduva-Treviño la con STR Olarizu-Berganzo.

– Tensión de servicio: 13,2 kV.

– N.º de circuitos: 1.

– Conductores: 3.

– Tipo de conductores: aluminio acero de 116,7mm² (100 A1/51 A).

– Apoyos: hormigón armado y metálicos.

– Longitud: 2459 m.

– Origen: apoyo n.º 19882 de la línea en proyecto en las inmediaciones de Mijancas.

– Final: apoyo n.º 19899 de la línea proyectada en las inmediaciones de Santurde.

Declarar, en concreto, la utilidad pública de la instalación que se autoriza, llevando implicita esta declaración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la citada Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la declaración de Urgente Ocupación dispone el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, con los efectos registrales del artículo 53 de la misma.

Esta Resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, en el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre y con las condiciones generales siguientes:

1.– Onartutako proiektuarekin bat etorriaz gauzatu beharko dira obrak, eta, halakorik bada, eskatzen eta onartzen diren aldakuntzekin.

2.– Martxan jartzeko epea urtebetekoa izango da, ebazpen honen datatik hara.

3.– Behin betiko errekonozimenduari eta martxan jartzeko aktari dagokionez, lanak amaitu direla jakinarazi beharko dio Arabako Lurralde Bulegoari instalazioen titularrak.

Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerakoenak errespetaturik ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Halaber, inoren eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubideari eutsiz ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Berrikuntza eta Energia sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean (lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 28a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

1.– Las obras deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que, en su caso, se soliciten y autoricen.

2.– El plazo de puesta en marcha será de un año, contado a partir de la presente Resolución.

3.– El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a la Oficina Territorial de Álava, a efectos de reconocimiento definitivo y extensión del acta de puesta en marcha.

La presente Resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Asi mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la via administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejeria de Innovación y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2008.

El Director de Energía y Minas,
TXABER LEZAMIZ CONDE.